

ETB1

GU TA GUTARRAK

**Maiatzaren 20an Miranoneko ETBra joan ginen
GTG (Gu ta Gutarrak) saioa ikustera.**

Goizeko 9:30etan etorri zen autobusa gure bila eta, hara iritsi ginenean, itxaron gela batera eraman gintuzten. Lehenbizi, asteazken gauean emango duten atala grabatu zuten; ondoren, grabatzen bukatu zutenean, itxaron gelan hamaiketako bat eman ziguten. Ordubete egon ginen itxaron gelan denbora pasatzen eta, horren ostean, berriro joan ginen grabatze lekura: kasu honetan osteguneko saioa grabatu zuten. Azkenik grabatu ondoren, partaideekin argazkiak atera genituen.

